GABIRIAKO UDALA
20217 GABIRIA
(GIPUZKOA)

| | |
|---|---|
| **GABIRIAKO "OSTATU"KO OSTALARITZA ZERBITZUEN ERABILPEN ETA KUDEAKETA PROZEDURA IREKI BIDEZ ESLEITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA** | **PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DE LA CONCESION DE LA EXPLOTACION DE LOS SERVICIOS DE HOSTELERIA DEL OSTATU DE GABIRIA.** |
| **I.- XEDAPEN OROKORRA** | **I.- DISPOSICIÓN GENERAL** |
| Orri hauen helburua hauxe da: Gabiriako Ostatuaren ostalaritza, eskolako jangela zerbitzua eta bertako produktuen denda baten ustiapena prozedura irekien bidez esleitzeko lizitazioa arautzea. | El objeto de este pliego es la regulación de la licitación por procedimiento abierto de la explotación de los servicios de hostelería, comedor escolar y tienda de productos locales del Ostatu de Gabiria. |
| **II.- KONTRATUAREN GAIA** | **II.- OBJETO DEL CONTRATO** |
| Kontratu honen xedea, Gabiriako udalak, baldintza teknikoen plegu honen bidez, Gabiriako Ostatuko tarberna, jatetxe, eskolako jangela eta denda erabilera arautzea da. | El objeto de este contrato es la regulación por el Ayuntamiento de Gabiria, a través de este pliego de prescripciones técnicas, del uso de bar, restaurante, comedor escolar y tienda del Ostatu de Gabiria. |
| **III.- BALDINTZAK** | **III.- CLÁUSULAS** |
| **A) LANGILEGOA** | **A) PERSONAL** |
| Esleipendunak, zerbitzua betetzeko kontratatua duen langilego guztiarekiko, Laneko Legerian eta Gizarte Segurantzarenean eta bereziki, Laneko Arriskuen Prebentzio arloan indarrean dauden xedapen guztiak betetzeko betebeharra izango du. | La persona adjudicataria, en lo que se refiere a todos los trabajadores que contrate para el cumplimiento del servicio, se compromete a cumplir todas las disposiciones en vigor de la legislación en materia de trabajo y Seguridad Social, y en especial las disposiciones en materia de prevención de riesgos laborales. |
| Esleipendunak eta baita kontratatutako langilegoak ere beren jarduera euskaraz burutzeko gai izan beharko dute. | La persona adjudicataria, así como el personal contratado, habrán de tener capacidad para llevar a cabo su actividad en lengua vasca. |
| Esleipenduna, zerbitzua betetzeko garatzen dituen lanen eta eskainitako prestazio eta zerbitzuen erantzule izango da eta baita izaten diren gabezien, akatsen, erabilitako metodo desegokien edota erabaki okerren ondorioz gertatutakoaren erantzule ere. | La persona adjudicataria será responsable tanto de los trabajos que desarrolle para el cumplimiento del servicio, como de las prestaciones y servicios ofrecidos, así como de cualquier hecho que pudiera acontecer a consecuencia de carencias, deficiencias, uso de métodos inapropiados o decisiones erróneas. |

Tel. 943 880 734
Faxa. 943 889 319
E-mail: gabiria@udal.gipuzkoa.net
I.F.Z. P-2003900-D

| | |
|---|---|
| Kontratistak obligazioa izango du bere azken helbidea eta telefonoa Udalaren ezagupenean jartzeko. | La entidad contratista está obligada a poner en conocimiento del Ayuntamiento su última dirección y número de teléfono. |
| **B) PUBLIZITATEA ETA DIBULGAZIOA** | **B) PUBLICIDAD Y DIVULGACIÓN** |
| Zerbitzuaren titularitatea Udalarena da, beraz, zerbitzua kudeatuko duen enpresa beharturik dago honako hauek betetzera: | La titularidad del servicio es del Ayuntamiento, por lo que la empresa que gestione el servicio estará obligada a cumplir las siguientes estipulaciones: |
| • Zerbitzuaren irudiarekin ezingo da publizitaterik egin erakunde esleipendunaren interes partikularrerako, Udalaren baimenik gabe. | • No se podrá hacer uso de la imagen del servicio con el fin de hacer publicidad en interés particular de la persona adjudicataria sin contar con el consentimiento del Ayuntamiento. |
| • Udalaren baimenarekin egin daitekeen publizitatean, beti adierazi beharko da zerbitzuaren Udal izaera. | • En la publicidad que se lleve a cabo con consentimiento del Ayuntamiento, se deberá mencionar siempre la naturaleza municipal del servicio. |
| • Edozein kasutan udal-arauak errespetatuz egingo da publizitatea. | • La publicidad se llevará a cabo, en cualquier caso, cumpliendo con las normas municipales. |
| **C) INSTALAZIO ETA MAKINERIAREN MANTENIMENDUA** | **C) MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES Y MÁQUINAS** |
| Esleipendunak egoera onean zaindu eta mantendu beharko ditu zerbitzuak dituen ondasunak eta instalazioak. Horretarako, instalazioen eta ekipamenduen mantentzea eta iraunaraztea bermatzeko beharrezko diren gastuak bere kargura izango dira, legez jabearen ardurakoak direnak izan ezik. | La persona adjudicataria deberá conservar en buen estado los bienes y las instalaciones del servicio, y supervisarlos. Para ello, correrán a su cargo los gastos necesarios para asegurar el mantenimiento y la conservación de todas las instalaciones y los equipamientos, a excepción de aquellos que sean responsabilidad del titular. |
| Gabiriako Udalak taberna erabat horniturik utziko du. Kontratuari atxikiko zaio, eranskin moduan, Udalak kontratistaren esku uzten dituen gauzen inbentarioa. | El Ayuntamiento de Gabiria se compromete a entregar el bar completamente provisto. En el inventario, incorporado al contrato como anexo, se recogerá una relación de todos los bienes que el Ayuntamiento deje en manos del/de la contratista. |

GABIRIAKO UDALA
20217 GABIRIA
(GIPUZKOA)

| | |
|---|---|
| Esleipendunaren kargura joango da ekipamendu guztia osatzen duten instalakuntza eta makineria guztiaren mantenimendua (etxetresna elektrikoen konponketei eta ordezkatzeei Administrazio Baldintza Zehatzen Orrietan xedatutakoa aplikatuko zaie). | Quedará a cargo de la persona adjudicataria el mantenimiento de las instalaciones y máquinas que formen parte del equipamiento (para los arreglos que sea necesario realizar a los aparatos eléctricos y para las piezas de recambio será de aplicación lo dispuesto en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares). |
| Kontratuaren indarraldia bukatzear dagoenean berriro ikuskapen bisita luzatuko da, Udalari ondasun guzti hauek hartu zituen moduan eta erabiltzeko gai itzultzen zaizkiola egiaztatuko delarik. | Cuando el contrato esté próximo a finalizar, se llevará a cabo una visita de inspección, en la que se procederá a comprobar que todos los bienes le son devueltos al Ayuntamiento en el mismo estado en el que se entregaron y aptos para ser usados. |
| Ondasunik faltako balitz edo modu desegokian edo txarragoan baleude, Udalari berauek birjartzeko diru kopurua eman beharko dio, erabilera arruntaren ondoriozko desgasteagatiko kalteak salbu. | Si se encontrase que falta alguno de los bienes o que han sido usados de manera inapropiada, o que se encuentran en mal estado, la persona adjudicataria deberá entregar al Ayuntamiento la cantidad necesaria para su reposición, salvo que se trate de daños producidos por desgaste, como consecuencia del uso habitual. |
| Gabiriako Udalaren berariazko baimenik gabe, ez da inolako obrarik egiterik izango ez eta ekipamenduak aldatzerik ere. | No se podrá realizar ninguna obra ni modificación en los equipamientos sin el permiso expreso del Ayuntamiento de Gabiria. |
| **D) GARBIKETA** | **D) LIMPIEZA** |
| Esleipendunak eraikuntza eta instalakuntzak garbitu behar ditu eta hauek garbitasun egoera egokietan eduki behar ditu. | La persona adjudicataria se ocupará de la limpieza del edificio y las instalaciones, y deberá mantenerlo en perfecto estado de limpieza. |
| Erabiltzen duen tresneria, materiala, altzariak etab beti higiene eta garbitasun baldintza onetan eduki beharko ditu. Esleipendunari dagokio garbitasun produktuak bere kargura erostea. | Del mismo modo, deberá mantener en condiciones adecuadas de higiene y limpieza todos los utensilios, materiales, muebles, etc. que utilice. Correrá a cargo de la persona adjudicataria la compra de los productos de limpieza. |
| Horretaz gain, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudiak xedaturikoa bete beharko du (ordutegi, zarata, isurketa eta osasun baldintzei dagokienean). | Además, deberá cumplir lo dispuesto en la normativa sobre actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas (en lo referente a horario, ruido, vertidos y condiciones sanitarias). |

Tel. 943 880 734 E-mail: gabiria@udal.gipuzkoa.net I.F.Z. P-2003900-D
Faxa. 943 889 319

| | |
|---|---|
| Tabernan edo jangelan sortu daitekeen zaborra horretarako Udalak prestaturiko sistema, leku eta ordutegian atera beharko du. | La basura que se produzca en el bar o el comedor deberá ser depositada según el sistema y en los lugares y horarios fijados por el Ayuntamiento para tal fin. |
| **E) JENDEARI ARRETA** | **E) ATENCIÓN A LA CIUDADANÍA** |
| Esleipendunak kontratatuiko lanak arreta osoarekin burutu behar ditu, erabiltzaileei zerbitzua bermatuz eta nazionalitate, arraza, sexu baldintza edota beste edozein ezaugarrigatik diskriminatu gabe eta hauen eskubideak errespetatuaz: adierazpen askatasuna, tratu zuzena etab. | La persona adjudicataria deberá realizar los trabajos contratados con absoluta diligencia, garantizando el servicio a los usuarios, sin discriminarlos por razón de raza, sexo o cualquier otra característica, y respetando el derecho de los mismos a la libertad de expresión, trato correcto, etc. |
| **F) HIZKUNTZA** | **F) IDIOMA** |
| Esleipendunak Udalaren hizkuntza-jarduera arautzeko planen arabera jokatuko du. Beraz, zerbitzua ematerakoan herritarrekin dituen ahozko harremanak euskaraz gauzatuko ditu. Hots, esleipendunak lehenengo hitza euskaraz egingo du eta zerbitzu jasotzaileak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa. | La persona adjudicataria deberá actuar conforme a los planes del Ayuntamiento que regulen la actividad lingüística. En consecuencia, deberá utilizar el euskera en las relaciones orales que mantenga con los ciudadanos a la hora de prestar el servicio. Es decir, la persona adjudicataria deberá dirigirse a los ciudadanos en primer lugar en euskera, y continuar la conversación en la lengua que escoja el receptor del servicio. |
| Esleipendunak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz behintzat emango ditu ezagutzera eta, halabeharrez elebitan emango balitu, euskarari emango zaio lehentasuna. | Los documentos, carteles, avisos y demás escritos que la persona adjudicataria en el cumplimiento de su servicio pusiera a disposición de los ciudadanos y ciudadanas deberán estar escritos al menos en euskera, y si fuera imprescindible hacerlo en ambas lenguas, dará tratamiento de preferencia al euskera. |
| Udalarekin dituen ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango ditu. | Las relaciones tanto orales como escritas que mantenga con el Ayuntamiento deberán ser en euskera. |
| Baldintza plegu hauetan eta Administrazio Baldintza Zehatzen Orrietan zehaztutako hizkuntza-betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio organoari dagokio. | Corresponde al órgano de contratación realizar un seguimiento para comprobar el cumplimiento de las obligaciones lingüísticas concretadas en este pliego de prescripciones y en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares. |

GABIRIAKO UDALA
20217 GABIRIA
(GIPUZKOA)

| G) BESTELAKO ARAUAK | G) OTRAS NORMAS |
|---|---|
| Adingabekoei alkoholdun edariak ateratzea debekatuta dago. | Está prohibido servir bebidas alcohólicas a menores de edad. |
| Freskagarri eta jakien makinak jarri nahi izanez gero, zerbitzuak berak kudeatuko ditu, Udalak horretarako baimena eman ondoren. | En caso de que se deseen instalar máquinas expendedoras de refrescos y alimentos, las mismas serán gestionas por el propio servicio, una vez cuente con la autorización del Ayuntamiento. |
| Txanpon-makinak ez dira onartuko tabernan. | No se podrán instalar máquinas tragaperras. |
| Salneurriak urtean behin igoko dira, urte hasieran eta hauek KPI-aren (kontsumorako prezioen indizea) arabera egingo dira. | Los precios subirán una vez al año, a principios del año, basándose para ello en el IPC (índice de precios al consumo). |
| **IV. INGURUMEN KUDEAKETA** | **IV. GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL** |
| Esleipendunak ingurumenarekin errespetuzko zerbitzu eskaintza egiteko, kontuan hartu beharko ditu naturaren eta ingurumenaren balioak lizitaziorako xede diren instalazioetan, batez ere hondakinen bilketa eta energi kontsumoen arrazionalizazioari dagokionez. | La persona adjudicataria deberá ofrecer un servicio respetuoso con el medio ambiente, y para ello deberá tener en cuenta los valores naturales y medioambientales en las instalaciones objeto de la licitación, en especial en lo que se refiere a la racionalización en la recogida de residuos y en los consumos de energía. |
| **V. ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA** | **V. HORARIO Y CALENDARIO** |
| Zerbitzua honako gutxieneko ordutegian eman beharko da, ordutegi hau eskaintzan hobetu daitekeelarik (beti ere, legezko irekiera ordutegia errespetatuz). | El servicio deberá ser ofrecido en el horario mínimo detallado, pudiéndose mejorar el mismo en la licitación (siempre que se respete el horario de apertura legal). |
| Ostatua irekita egon beharko da gutxienez eta ohiki: | El Ostatu deberá permanecer abierto como mínimo y como norma general: |
| - Egunero ireki beharko da eta irekitzeko ordutegia 10:00etatik 22:00etara izango da. Astebukaera eta jaiegunetan 10:00etatik 24:00etara izango da.<br>- Astean zehar egun batean ixteko eskubidea izango du, ixteko eguna inolaz ere ezin izango | - Diariamente, desde las 10:00 horas hasta las 22:00 horas. Fines de semana, festivos y días previos a festivos desde las 10:00 horas hasta las 24:00 horas.<br>- Podrá estar cerrado un día laboral entre semana. El día de cierre no será, en ningún |

da ostiral, larunbat, igande, hileta, herri ospakizun, jai/ospakizun bezpera edo mota honetakoak gertatzen den egunean gauzatu. Kasu honetan ixtea ospakizun edo gertaeraren aurreko edo hurrengo egunean egingo da.

- Urtean 28 egunetan itxi ahal izango dute oporrengatik, Aste Santua, edo herriko jaietako egunetan ezik. Uztailaren 20tik abuztuaren 20ra arte ere ezingo du itxi. 3 egun lehenago, asmo honen berri eman beharko zaio GABIRIAko Udalari. Gehienez, 15 egunez itxi ahal izango da jarraian.
- Gutxienez, zerbitzua 12 ordu egongo da irekita astean zehar eta asteburuetan, jaiegunetan eta festa bezperetan 14 ordu.
- Edozein arrazoi dela medio zerbitzuak itxita egon behar badu, lehenago asmo honen berri eman beharko zaio GABIRIAko Udalari.
- Esleipenduna, Gabiriako Balentzategi Herri Eskolako jangela zerbitzua prestatzera behartuta egongo da ikasturte osoan zehar.
- Esleipendunaren erantzunkizuna izango da berau bere postutik falta denean ordezko bat bertan ezartzea.

**EGINBIDEA:** Preskripzio Teknikoen Plegu hau, Gabiriako Udalak 2019ko irailaren 2an egindako Batzarraldian onartua izan zen.

Gabiria, 2019ko irailaren 2an
Idazkari-Kontuhartzaileak

Mª Asunción Villar Irastorza

caso, ni viernes, ni sábado, ni domingo, ni día de funeral, ni víspera de fiesta, ni días previos a festivos ni cualquier otro día de celebración local o de ese tipo. En estos casos, el día de cierre se trasladará al inmediatamente anterior o posterior al día de celebración o acontecimiento.

- Podrán cerrar el establecimiento por vacaciones durante 28 días al año, sin que coincida con el periodo de Semana Santa o fiestas locales. Tampoco se podrá cerrar el establecimiento desde el 20 de julio al 20 de agosto. El adjudicatario tendrá que informar sobre ello al Ayuntamiento de GABIRIA con una antelación de 3 días. Podrá cerrar el establecimiento un máximo de 15 días continuados.
- El servicio permanecerá abierto, como mínimo, 12 horas diarias entre semana y 14 horas diarias los fines de semana y festivos y vísperas de fiesta.
- En caso de que el servicio tuviera que permanecer cerrado por cualquier razón, el adjudicatario estará obligado a hacérselo saber el Ayuntamiento de Gabiria.
- El adjudicatario está obligado a prestar el servicio de comedor escolar de la Herri Eskola "Balentzategi" de Gabiria durante todos los días del curso escolar.
- Será responsabilidad de la persona adjudicataria proporcionar un/a sustituto/a cuando la misma falte en su puesto.

**DILIGENCIA:** El presente Pliego de Prescripciones Técnicas fué aprobado por el Ayuntamiento de Gabiria en Sesión Plenaria celebrada el día 2 de septiembre de 2019.

Gabiria, con fecha 2 de septiembre de 2019.
La Secretaria-Interventora.

Mª Asunción Villar Irastorza